

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

EBAZPENA, 2017ko irailaren 11koa, HABEren zuzendari nagusiarena, 2017/1 Jardunbidea emateko dena, euskaltegiek eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren arabera Curriculum Proiektuak aurkezteko eta izapidetzeko aplikatuko diren irizpideak izan ditzaten.

2015eko uztailaren 22ko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) ezartzen duen Aginduaren 7. artikulua, Euskaltegiaren Curriculum-proiektuaz ari denean, xedatzen du HEOCaren ezarpenarako, euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak bere curriculum-proiektua aurkeztu behar diola HABEren zuzendari nagusiari curriculum-jarduerarekiko printzipioak eta irizpideak ezarri, balio-aukerak azalduz eta xedeak zehaztuz.

Agindu horren xedapen iragankorretatik bigarrenak dio "Euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek bi urteko epea izango dute Agindu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera egun indarrean duten curriculum-proiektua Agindu honetan xedatzen dena ekartzeko" eta Azken Xedapenetatik Laugarrenaren arabera, epe hori 2017ko urriaren 2an amaitzen da. Beraz, komeni da lehenbailehen argitzea Curriculum Proiektuen izapiderako eta onarpenarako aplikatuko diren irizpideak.

Bestalde, euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatu gehienek agortzen ari dira epea nork bere proiektua aurkezteko; hori dela eta, zuzendaritza honek proiektu asko batera izapidetu beharko dituenek, komenigarritzat jotzen da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako aukera baliatzea ECPak aurkeztu ondorengo izapide-epeak azaltzeko, curriculum-proiektuek izapide egokia izan dezaten.

Horrenbestez, HABEren HEOCak bi urte indarrean egin dituen honetan, Euskaltegiko Curriculum-proiektua izapidetzeko jardunbidea eta jarraibideak zehazteko

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- 2017/01 Jardunbidea onartzea eta jakinaraztea, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) ezartzen duen 2015eko uztailaren 22ko Aginduaren 7. eta 8. artikuluetan xedaturiko Euskaltegiko Curriculum Proiektua aurkezteko eta izapidetzeko irizpideak emateko, Ebazpen honen lehen eranskinen jasotzen den eran.

Bigarrena.- Euskaltegi bakoitzeko Curriculum Proiektua aurkeztu ondorengo izapidea eta lanketa 2017/18 ikasturtearen zehar gauzatzea eta amaitzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen bigarren eranskinera biltzea ECPak izapidetzeko irakurketa-gida izango den dokumentua, "Euskaltegien curriculum proiektua (ECP)".

Laugarrena.- Ebazpen honen hirugarren eranskinera biltzea HABEko Curriculum Garapenerako atalak ECPak ebaluatze oinarrizko tresna gisa erabiliko duen dokumentua, "Ebaluazio-txantiloia".

Bosgarrena.- Interesdunei jakinaraztea administrazio-bidea agortzen ez duen Ebazpen honen aurka egiteko, gora jotzeko errekurtsoa jar daitekeela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aurrean, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epearen barruan.

Donostian, 2017ko irailaren 11n

Jokin Azkue Arrastoa

HABEREN zuzendari nagusia

HABE

Helduen
Alfabetatze eta

Berreuskalduntzerako
Erakundea

Vitoria-Gasteiz kalea, 3
20018 DONOSTIA
Tel.: 943 022 650 Faxa: 943 022 643
www.habe.euskadi.eus
zuzendaritza@habe.eus
IFK: Q 2040002 D

HABE



2017 IRA 27

HABEren Registro Orokorra
Registro General de HABE

SARRERA

Zk.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

I. ERANSKINA

2017/01 JARDUNBIDEA, IRAILAREN 8KOA, HABEREN ZUZENDARI NAGUSIARENA, HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMAREN ARABERA EUSKALTEGIEN CURRICULUM PROIEKTUAK AURKEZTEKO ETA IZAPIDETZEKO IRIZPIDEAK EMATEKO DENA.

1.- Helburua.

Jardunbide honek helburu du, 2015eko uztailaren 22ko Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) ezartzen duen Aginduaren 7. eta 8. artikuluetan xedaturiko Curriculum Proiektua aurkezteko eta izapidetzeko irizpideak ematea.

2.- Aplikazio-eremua

HABEk atxikita duen Euskaltegien eta Euskararen Autoikaskuntzarako Zentroen Erregistroan inskribaturik daudenek osatzen duten jardunbide honen aplikazio-eremua.

3.- Euskaltegiaren Curriculum Proiektuaren arau-oinarriak.

ECParen edukiek gai honen inguruan indarrean dauden lege-xedapenak beteko dituzte, beti ere:

-2015eko uztailaren 22ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) ezartzen duen Aginduaren 7. artikulua, Euskaltegiaren curriculum-proiektuaz ari dena.

-2016ko azaroaren 23ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ezarritako gaitasun-mailen ziurtagiriak eskuratzeko prozedurak ezartzen dituen Aginduaren 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoa.

-2017ko urtarilaren 9ko HABEren zuzendari nagusiaren Ebazpena, HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegi-tako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleek 2016-2017 ikasturtean ebaluazio jarraituaren bitartez HEOCaren zein maila egiaztatu ahal izango dituzten ezartzen duena eta 2017ko azterketa-deialdiak egiten dituen, edota Ebazpen horren edukiak eguneratzeko ematen diren urtean urteko Ebazpenak; hain zuzen ere, ebaluazio jarraituaren barruko ebaluazio-jardueren bitartez egiaztatu beharreko gaitasun-mailei eta ebaluazio-jardueren ezaugarriei (I. eranskinaren 4. oinarria) dagokienez.

4. oinarria. Euskaltegi Curriculum Proiektuaren irakurketa-gida.

Euskaltegi bakoitzeko arduradunek eta HABEko Curriculum garapenerako teknikariek elkarlan egokia eta aberasgarria izan dezaten, erreferentziatzko dokumentu izango dute Ebazpen honen bigarren eranskinera bildutako "Euskaltegien curriculum proiektua (ECP)", irakurketa-gida, hain zuzen, 2017ko ekainaren 21eko dataz, euskaltegi-tako zuzendari zein titularrei HABEren zuzendari nagusiak bidalitako eskutitzean aurkeztutakoa.

5.- Prozeduraren hasiera.

Prozedura honi hasiera emango zaio euskaltegi zuzendariak, euskaltegi titularren oniritziz, curriculum-proiektua HABEren zuzendari nagusiaren aurrean aurkeztean duenean.

Euskaltegiaren Curriculum Proiektua aurkezteko epea 2017ko urriaren 2an amaitzen da.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

6.- Ondorengo izapideak.

HABEko Curriculum garapenerako atalari dagokio ondorengo izapideak bideratzea.

Bi hilabete t'erdiko epea izango du atal horrek aurkeztutako ECPak aztertu eta dagozkien txosten teknikoak euskaltegiei helarazteko HABEren zuzendari nagusiaren oniritziarekin.

Horretarako, "Euskaltegiko Curriculum Proiektua Ebaluatzeako Tresna" izenburua daraman dokumentua izango da ECPak ebaluatzeako oinarritzko tresna (2017ko ekainaren 21eko dataz, euskaltegietako zuzendari zein titularrei HABEren zuzendari nagusiak bidalitako eskutitzean aurkeztutakoa).

Hala balegokio, Curriculum garapenerako atalak landutako txostenera bildutakoak zuzendu, osatu zein aldatzeko egokitzapenak ondorengo bi hilabeteko epea izango du euskaltegi bakoitzak HABEren aurkezteko,

Ondoren, HABEko Curriculum garapenerako atalak euskaltegiaren ECPari egindako egokitzapenak aztertu ondoren, dagokion dokumentua onartzeko, aldatzeko zein ezeztatze proposamena egingo dio HABEren zuzendari nagusiari.

7.- Jardunbidearen amaiera.

HABEren zuzendari nagusiak du eskumena, Ebazpen bidez, izapideturiko ECPak onartzeko, ebatzitakoari buruzko zioak eta zergatiak azalduz.

Halaber, Curriculum-proiektua onartu ondoren, Euskaltegien eta Euskararen Autoikaskuntzarako Zentroen Erregistroan inskribatzeko agindua emango du, 2015eko uztailaren 22ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Helduen Euskalduntzearen Oinarritzko Curriculum ezartzen duen Aginduaren 8. artikulua dioenari jarraikiz.

8.- Prozeduraren jarraibideak.

Jardunbide honetan zehaztutako jakinarazpenak eta berri emateak batez ere posta elektronikoz bideratuko dira. Horretarako euskaltegi bakoitzak egiteko hauek egoki izapidetzeko zein helbide elektronikoko erabili nahi duen emango dio aditzera HABEri aurkeztu beharreko memorian.

BIGARREN ERANSKINA:

EUSKALTEGIEN CURRICULUM PROIEKTUA (ECP), IRAKURKETA-GIDA.

Curriculumak, azken batean, irakaslearen lanabes profesionala da, baina baita aurre egin beharreko erronka profesionala ere; zer, nola, noiz eta zergatik galderei erantzutea eskatzen baitio.

Curriculum-proposamen baten alde egitean bere betebeharrei erantzuteko modua hautatzen du irakasleak, hain zuzen, ikasleekin gerora ikasgelan burutu beharrekoa.

EUSKALTEGIEN CURRICULUM PROIEKTUA (ECP)

Donostian, 2017ko ekainaren 16an

AGINDUA, 2015eko uztailaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) ezartzen duena.

Erreferentziazko legedia

Euskaltegiaren Curriculum Proiektua zer markopean kokatzen den ulertu nahi izanez gero, nahikoa da HABEk arautzen duen eremua erreparatzea eta azken urte biotan ebatzi duena aztertzea.

AGINDUA, 2015eko uztailaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) ezartzen duena.

7. artikulua.– Euskaltegiaren curriculum-proiektua.

1.– HEOC honek ezarritako gidalerroen garapenerako bere izari-ezaugarrien arabera curriculum-proiektua osatu behar du euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak, une oro bertako jardunbideei norabidea eta koherentzia eskaintzeko, izan ikasgeletan, izan euskaltegian bertan. Horrela, euskaltegiari eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzari aitortzen zaion autonomia pedagogiko eta antolatzailearen barruan, irakasle-taldeari dagokio zehaztapen hau burutzea. Horretarako, euskaltegiak inguruko eragileek bizi duten egoera soziolinguistikoari erreparatuko dio, behar bezalako curriculum-egokiera egin dezan, betiere, ikasleen komunikagaitasuna abiapuntu hartuz.

2.– HEOCaren ezarpenerako, euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak bere curriculum-proiektua aurkeztu behar dio HABEren zuzendari nagusiari, jarraian datozen gidalerroak jasoz, curriculum-jarduerarekiko printzipioak eta irizpideak ezarri, balio-aukerak azalduz eta xedeak zehaztuz:

- Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak bizi duen egoeraren eta bere inguru sozialaren beharren azterketa eta autoebaluazioa.
- Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak bere egiten dituen hizkuntzaren ikas-irakaskuntzari buruzko printzipio nagusiak.
- HEOCak zehazten dituen helburu eta edukien aukera eta hurrenkera, euskaltegi zein euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzaren eta ikasleen beharretara egokituz.
- HEOCa mailaka egokitzeko proposamena, baita maila nahiz azpimaila bakoitzeko aurreikusten den ordu-kopurua ere.
- Hobetsitako aukera metodologikoak.
- Lehenetsitako ikastereduak.
- Ikasmaterialen eta irakasmaterialen proposamena eta hauek aukeratzeko irizpideak.
- Ikasleak, irakasleak eta euskaltegia bera ebaluatzeko aribideak.

AGINDUA, 2016ko azaroaren 23koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ezarritako gaitasun-mailen ziurtagiriak eskuratzeko prozedurak ezartzen dituena.

3. Artikulua. Gaitasun-mailak egiaztatzeko sistemak

(3.2) Ebaluazio jarraituaren barruan egindako ebaluazio-jarduera batzuk balio sumatiboa edo egiaztatzaileaz aplikatuko dira.

4. artikulua.– Gaitasun-maila ebaluazio jarraituaren barruan eginiko ebaluazio-jardueren bitartez egiaztatzea.

(4.2) Euskaltegiek eta autoikaskuntzarako zentroek, beren Euskaltegiaren Curriculum Proiektuan jasotako irizpideen eta ebaluazio-sistemaren arabera, gutxienez ebaluazio-jarduera hauek egingo dituzte: hasierako ebaluazio diagnostikoa, tarteko ebaluazioa edo ebaluazioak –ikasprozesuaren iraupenak horretarako aukera ematen badu– eta amaierako ebaluazioa. Maila bakoitzaren amaierako ebaluazioa gainditzea nahitaezkoa izango da ziurtagiria eskuratzeko.

(4.5) Balio egiaztatzailea izango duten ebaluazio-jarduera horiek lau trebetasunetan ikasleek eskuratutako gaitasuna neurtzeko eta egiaztatzeko egokiak izango dira. Ebaluazio-jarduera horien diseinua, aplikazioa eta ebaluazioa euskaltegiek egingo dituzte Curriculum Proiektuan jasotakoaren arabera.

(4.6) Komunikazio-eraginkortasuna izango dute ebaluazio-irizpide nagusia. HEOCaren tarteko deskripzioa.

(4.7) Amaierako jarduerak bi irakaslek ebaluatuko dituzte eta zuzendariak onetsiko.

EBAZPENA, 2017ko urtarrilaren 9koa, HABEren zuzendari nagusiarena, HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegiak eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleek 2016-2017 ikasturtean ebaluazio jarraituaren bitartez HEOCaren zein maila egiaztatu ahal izango dituzten ezartzen duena eta 2017ko azterketa-deialdiak egiten dituen.

4. oinarria.– Ebaluazio-jardueren ezaugarriak.

4.1.– Ebaluazio jarraitua ikasturtean zehar garatuko den bi garaietako bakoitzaren barruan, euskaltegiek eta autoikaskuntzarako zentroek, beren Euskaltegiaren curriculum-proiektuan jasotako irizpideen eta ebaluazio-sistemaren arabera, gutxienez ebaluazio-jarduera hauek egingo dituzte, helburu didaktikoez egin ditzaketen nahi beste jardueraz gainera: hasierako ebaluazio diagnostikoa, tarteko ebaluazioa edo ebaluazioak -ikasprozesuaren iraupenak horretarako aukera ematen badu- eta amaierako ebaluazioa. Maila amaierako ebaluazio-jarduerak gainditzea derrigorrezkoa izango da ikasleak egiaztatzea eskuratzeko.

Euskaltegiaren Curriculum Proiektua atalez atal

1.- Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak bizi duen egoeraren eta bere inguru sozialaren beharren azterketa eta autoebaluazioa.

2015eko uztailaren 31ko Aginduak atal hau bigarren tokian aurkezten badu ere, interesgarria da hasierara ekartzea, besteak beste, curriculum-proiektua zer erakundetan eta zer testuingurutan kokatzen den irudikatzen lagunduko duelako, eta horretan oinarriturik hartzaileekiko lan-proposamen adierazgarriak eta esanguratsuak bideratzea ahalbidetuko.

Helburua ez da azterketa soziologiko, sozioekonomiko edota soziolinguistiko landu eta sakona burutzea; beharbada, nahikoa da inguruak eskaintzen dituen aukerez eta inguru horrekiko harremanaz edo integrazioaz hausnartzea. Izan ere, interesgarria da ingurune jakin batek eskaintzen dituen hizkuntzaren gizarte-erabilerak kontuan izatea, ikas-irakasprozesuak eraikitzeke garaian erabilera horiek ere kontuan izateko.

- Euskaltegiaren kokapena eta deskripzioa
 - Titularitatea
 - Kokapena
 - Ikas- eta irakas-eremuak (egoitza, ikasgelak, gela desplazatuak...)
 - Zerbitzuak (liburutegia, informatika-gela...)
 - ...
- Euskaltegiaren egitura eta antolaketa akademikoa
 - Organigrama (zuzendaria, gerentea, idazkari akademikoa...)
 - Koordinazioa
 - Irakasleriaren profila (kopurua, adina, ikasketa akademikoak, euskara-maila, prestakuntza didaktikoa, ezagutza teknologikoa...)
- Ikasleak
 - Ezaugarriak (adina, jatorria, ikasketak, langabezia, behar komunikatibo nagusiak...)
 - Bilakaera azken hamarkadan
- Testuinguruaren alderdi soziolinguistikoak
 - Euskaltegia kokatzen den inguru sozialaren berezitasunak (euskaren ezagutza- eta erabilera-mailak; ikasleen profila derrigorrezko hezkuntza uztean...)
- Eskaera eta eskaintza akademikoa
 - Eskaera (mailak, ordutegiak, ikastereduak...)
 - Eskaintza (mailak, azpimailak, moduluak, ordutegiak, ikastereduak...)
 - Taldekatze/mailakatzeko irizpideak
- Elkarte eta erakundeekin elkarlana
- Proiektuak, erabilera-aukerak, kanpo-ekintzak....

Hona iritsita, azpimarratu behar da testuinguruaren deskribapen soilera mugatzeak ez duela balio handirik, baldin eta ondorioz ateratzen ez bada. Euskaltegiaren eta testuinguruaren hausnarketak berekin bildu behar du zenbaterainoko eragina duen azaleratutako egoerak curriculum-proiektuan eta euskaltegiaren eguneroko jardunean. AMIA izan daiteke jasotakoa islatzeko erreminta egokia, aukera eskaintzen baitu testuinguruak eskaintzen dituen aukerak eta mehatxuak azalertzeko, eta testuinguru horretan proiektuaren ahuleziak eta indarguneak nabarmentzeko.

2.- Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak bere egiten dituen hizkuntzaren ikas-irakaskuntzari buruzko printzipio nagusiak.

Ikas-irakaskuntzara bideratutako curriculum oro elkarri eragiten dauden hiru galdera nagusien inguruan eraikitzen da: zer ikasiko da? Nola aurreikusiko da eta lortuko ikaskuntza? Eta zein neurritaraino da lehen galdera egokia, eta emankorra bigarrena? HEOCa komunikazioan oinarritutako curriculum denez, ikaskuntza gizarte testuinguruetan komunikatzen ikastea da.

Estu-estu loturik ageri zaizkigu atal honetan jarduera didaktikoaren hiru elementu nagusiak: bi subjektuak –ikaslea eta irakaslea- eta edukia; hizkuntza, irakaskuntza eta ikasketa; bestela esanda, linguistika, psikologia eta pedagogia.

HEOCean ageri denaren arabera, *“Helduen euskalduntzea ikaslearen komunikazio-gaitasuna garatzera bideratuko da, Hizkuntzen Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Erreferentzia Markoaren oinarri psikopedagogikoen baitan, ekintza komunikatiboa oinarri harturik, ikuspegi soziokonstruktibista eta ekintzara bideratutakoa hobesten da oinarrizko curriculum honetan”*. (19.or)

Bete-betean dira hainbat kontzeptu jokoan, hala nola, *solaskidea, testuingurua, komunikazio-egoera, mundu ezagutza eta solaskidearena, komunikazioaren xedea, inferentzia...* Nozio hauek ez badira kontuan hartzen, azaldu gabe geratuko da, neurri handi batean, behintzat, hizkuntzak nola funtzionatzen duen, besteak beste, gramatikak ezin duelako hizkuntza-sistemaren kanpoko aldagaiez arduratu.

Azken batean, euskaltegiari eskatzen zaio, HEOCean azaldutakoan oinarrituta, zein den hizkuntzaren ikas-irakaskuntzari buruz duen ikuspegia. Alegia, horren gaineko usteak eta irudipenak zehaztea, gerora eguneroko ikas-jardunaren printzipio nagusi izan daitezen.

- Hizkuntzari buruzko ikuspegia
 - Hizkuntza sistema; komunikazio-erreminta (erabilera) ...
 - Egituraketa subjektuen beharrak asetzeko
 - Zein da hizkuntza unitatea?
 - Trebetasunen integrazioa
 -
 - Hizkuntzaren gizarte-erabilerak
 - Gramatikaren trataera ikasprozesuan
- Ikas-irakaskuntzari buruzko ikuspegia
 - Hizkuntza baten ikas-prozesua: errepika? gatazka kognitiboa? eraiketa? ...
 - Gizarte-testuinguruetan ikastea.
 - Arazo-egoerak eta egoera-familiak
 - ...
- Aldagai estralinguistikoak
 - Partaideen usteak ikas-irakaskuntzarekiko
 - Aurreikuspenak eta motibazioak
 - Aurrezagutzak: harrera-estruturak.
 - Egoerak eta horien ezaugarriak

3.- HEOCak zehazten dituen helburu eta edukien aukera eta hurrenkera, euskaltegi zein euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzaren eta ikasleen beharretara egokituz.

Jardun didaktikoaren norabidea markatzen duten heinean, funtsezko atal bilakatzen dira helburuak eta bere biziko garrantzia hartzen dute. Izan ere, helburu zehatzak izateak, azaleratzeak eta partekatzeak bete-betean eragiten du ikas-irakasprozesuetan.

Gaitasun orokor zein komunikazio-gaitasun jakin batzuk lortzearren, zenbait ekintza komunikatibo azaltzen ditu HEOCak, maila bakoitzari dagozkion testuinguruak, komunikazio-baldintzak, arloak, gaiak, testuak, atazak eta estrategiak kontuan hartuz eta uztartuz. Izan ere, izaera integratzailea du curriculumak, eta horixe du helburu: ekintza komunikatibo horiek, elkarreraginean, elkarri loturik lantzeko aukera eskaintzea.

Kontrol-zerrenda da HEOCak eskaintzen duen egitura, mailaz maila ikasleek zer egin dezaketen eta ongi moldatzeko zer jakin beharko luketen azaltzeko —ikasleek zer arlotan parte hartuko duten, nolako jende motarekin jarriko diren harremanetan, zer eratako harremanak izango dituzten, zer gairi buruz eta zein egoeratan jardungo duten, zer-nolako mundu-ezagutza beharko duten halako ataza osatzeko—; ondoren, bai euskaltegiek curriculum-proiektuak zehaztean, bai irakasleek programazioak osatzean, bai argitaletxeek ikasliburuak eratzean, bai ebaluatzaileek azterketak prestatzean, erreferentzia bat izan dezaten curriculumaren garapen eta ebaluazioan.

- Mailaz mailako helburu zehatzen egokitzapena.
 - Helburu-mapa
 - Helburu bakoitzari dagokion azken egitekoa
- Edukiak
 - Azken egitekoei begirako edukien egokitzapenak (kultura edukiak, formalak, pragmatikoak eta psikolinguistikoak)
 - Hautaketa-irizpideak eta hurrenkerak

4. HEOCa mailaka egokitzeko proposamena, baita maila nahiz azpimaila bakoitzeko aurreikusten den ordu-kopurua ere.

Euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen irakas-jarduera, oro har, ikaslearen sei gaitasun-maila horietakoren bat eskuratzera bideratua egongo da; eta iraupen eta trinkotasun desberdineko ikastaro-eskaintza malguaren bitartez antolatuko da, gizarte-behar ezberdinei erantzutearren. Era berean, euskaltegiek xede bereziko ikastaroak ere antolatu ahal izango dituzte, betiere euskara biziberritzeko onartutako plangintza batean txertatuta badaude, nahiz eta arestian aipatutako gaitasun-helburu orokor horiek bete-betean ez aurreikusi. (Agindua, 2015eko uztailaren 22koa)

Lehen atalean azaldutako eskaera/eskaintza erlazioaren arabera, era batera ala bestera egituraturakoa du erakundeak euskalduntze-prozesua.

- Egituraketa: mailak, azpimailak, moduluak, ikastaroak...
- Egituraketa-irizpideak
- Zehaztutako egituraketaren arabera aurreikusitako ordu-kopurua: maila, azpimaila, moduluak, ikastaroak...

5.- Hobetsitako aukera metodologikoak.

Ez dago metodo bat bera ere ikas-irakasprozesuaren helburuak lortzeko ideala denik, besteak beste, hamaika arazoren aurrean jartzen duelako eguneroko praktikak irakaslea, erantzun unibokorik izan gabe, mementoan bertan erantzun beharrekoak direnak. Horretaz gain, kontuan izan beharko du irakasleak egindako hautuak ikasleen beharretara egokitu eta ezagutzaren eraiketa ahalbidetu beharko duela.

- Rolak
 - Irakaslea: bitartekaritza
 - Ikaslea: autonomia
- Ikaslearen, denboraren eta espazioaren antolaketa
- Taldekatzeko-irizpideak:
 - Syllabus inplizituak
 - Aldamioak
- Harreman- eta komunikazio-sareak: ikaskuntza kooperatiboa
- Edukien antolaketa eta aurkezpena
 - Ikuspegi sintetikoa eta analitikoa
 - Ibilbide inдукtiboa eta deduktiboa: heuristikoa
 - Arreta esanahian eta forman
- Ikas-sekuentzien egituraketa eta aurkezpena
 - Aurrezagutzak eta gatazka kognitiboak
 - Ikaslearen syllabus inplizitua
- Aniztasunaren trataera
- Jarraipena, tutoretza eta ebaluazioa

6.- Lehenetsitako ikastereduak.

HEOCa bideratzeko ikastaroak aurrez aurreko, tutorizatutako autoikaskuntzako eta jardun biko ereduen ezaugarrietara bilduko dira.

- Ereduek
 - Aurrez aurrekoa
 - Jardun biko (b-learning)
 - Ereduen arteko banaketa
 - Osagarritasun-irizpideak
 - Trebetasunen uztardura
 - Elkarrekintza-maila
 - Ikaslea-edukia
 - Ikaslea-irakaslea
 - Ikaslea-ikaslea
 - Ikaslea-teknologia
 - Gida didaktikoa

- Autoikaskuntza
 - Osagarritasun-irizpideak
 - Trebetasunen uztardura
 - Elkarrekintza-maila
 - Ikaslea-edukia
 - Ikaslea-irakaslea
 - Ikaslea-ikaslea
 - Ikaslea-teknologia
- Eskaintza-irizpideak
 - Hartzailea
 - Gaitasun teknologikoa
 - Gaitasun estrategikoa
 - Autonomia-maila
 - Tutoretza
- Teknologia-mota

7.- Ikasmaterialen eta irakasmaterialen proposamena eta hauek aukeratzeko irizpideak.

Kontuan hartzekoa da atal honen garrantzia, besteak beste, irakasleak irakasten duena eta ikasleak ikasten duena, maila handi batean, bederen, bitartekoak baldintzatzen duelako. Izan ere, ikas-irakaskuntzari buruzko asmo eta usteak ikasmaterialetan islatzen dira, eta, neurri handi batean, ikasgelako jardura bideratzeko laguntza eskaintzen dute.

Bitartekoen ahalmen kurrikularra ez da egileen proposamenean amaitzen; irakasleak horien azterketatik bide berriak edo osatuagoak proposa baititzake, baldin eta materialak horretako biderik eskaintzan badu: testuliburu itxia, proiektu estandarrik, ikas-sekuentziak edo unitate solteak ... Eta esan beharra dago Ikaskuntzarako aukerak eta beharrak ez direla ikasgelan agortzen, ezta liburuetan ere.

Badira, oinarri-oinarrian kontuan hartzeko bi baldintza: araudian ezarritakoarekiko koherentzia eta Euskaltegiaren Curriculum Proiektuan zehaztutakoarekikoa.

- Azterketa metodologikoa
 - Oinarrian zer adierazten den: marko metodologiko esplizitua
 - Hizkuntzaren kontzeptua
 - Ikaskuntza kontzeptua (jakinmina, motibazioa...)
 - Ardatz antolatzailea
 - Trebetasunen integrazioa
 - Ebaluazioaren trataera
 - Euskarritik zer ondorioztatzen den: azterketa didaktikoa
 - Erabileran testuingurura nola egokitzen den: irakasleen gaitasunak, ikasleen beharrak, kultura-edukiak ...
- Ebaluazio-irizpideak
 - Testuinguruarekikoak.
 - Egokiera-maila erakundearen helburuekiko
 - Programa, edukiak, ikastorduak...

- Erabiltzaile-mota
- Egiatzatze gintza
- ...
- Interesa
 - Kultura-edukiak
 - Kalitate formala
 - Proposatutako jarduerak
 - ...
- Proposamen didaktikoarekikoak
 - Koherentzia: eduki, metodologia eta azken ekintza komunikatiboaren artean.
 - Kohesioa: unitate didaktiko jardueren artean
 - Argitasuna: egitekoen azalpenak emateko orduan
 - Zehaztasuna: edukien arteko hurrenkera eta progresioan
 - Malgutasuna: azaleratzeko arazoei aurre egiteko garaian
 - Aniztasuna: proposatutako jarduera-motetan
- Material didaktikoa berritzea

8.- Ikasleak, irakasleak eta euskaltegia bera ebaluatzeko arribideak.

Ikaste- eta irakaste-prozesuaren baitan sortzen den informazioaren bilketa sistematikoa da ebaluazioa; batetik, prozesu horren alderdi guztien deskribaketa osoa eta zehatza emanez, eta, bestetik, deskribaketari buruzko epai eta irizpen arrazoitua eskainiz, betiere hobekuntzara begira.

Bi funtzio nagusi aitortzen zaizkio ebaluazioari: ikaste- eta irakaste-prozesua bideratzea eta lortutako emaitzak ezagutzea. Emaitzak ezagutzeaz gain, badu ebaluazioak beste balio nagusi bat: formatiboa; jasotako informazioan oinarrituta, gerora indarrean jarriko den ikaste- eta irakaste-prozesuari orientabideak eskaintzea. Alegia, gauzatutakoa-ren ebaluazioa, lehena, eta gauzatuko dena-ri begirakoa, bigarrena.

2015eko uztailaren 22ko Aginduaren 5. artikulua, Ebaluazio-irizpideez diharduenak, maila gainditzeko irizpide nagusia ezartzen du:

Maila bat gainditzeko, trebetasun bakoitzari dagokion ebaluazio-irizpideen balioespen-eskalako tarteko deskripzioa (2) bete beharko da, curriculumaren «ebaluazio irizpideak eta eskalak» atalean jasotakoaren arabera


Eta Agindu horren azken xedapenetatik lehenengoak aldaketa ezartzen dio Kultura sailburuaren 2011ko urtarrilaren 19ko Aginduaren 7. artikuluari, eta honela idatzita uzten du:

7.- artikulua.- Ebaluazio-irizpideak.

HEOCean ezarritakoari jarraikiz, komunikazio-eraginkortasuna izango da ebaluazio-irizpide nagusia. Azterketariak eskatu zaion ekintza komunikatiboa bete beharko du zuzentasunez eta egokitasunez, xedatutako maila eta trebetasun bakoitzaren zehaztasunetara ekarriz, eta ondoren adierazten direnak kontuan hartuz:

- Testuinguruarekiko eta testuarekiko egokitasuna: egoerari eta hartzaileari egokitzeko gaitasuna. Erregistroa.
- Ideien koherentzia; diskurtsoaren antolaketa eta garapena (konexioa eta kohesioa); testu-generoarekiko egokitasuna. Puntuazioa. Ahozkoan, prosodia.
- Erabilitako baliabide linguistikoen zuzentasuna eta aberastasuna. Gramatikarekiko egokiera. Ortografia. Lexikoa.
- Ebaluazioaren definizioa euskaltegiaren ikuspegitik:
 - Helburuak, subjektuak, garaiak eta audientziak
- Irakaslea
 - Ebaluazioa
 - Diagnostikoa: metodoak, prozedurak eta erremintak
 - Formatiboa
 - Sumatiboa: metodoak, prozedurak eta erremintak
 - Subjektuak: heteroevaluazioa, koevaluazioa eta autoevaluazioa.
 - Normotipoa: idiografikoa, nomotetikoa (irizpideekikoa, normarekikoa)
 - Audientziak
- Irakaslea
 - Helburuak, subjektuak, garaiak eta audientziak
 - Irizpideak
 - Metodoak, prozedurak eta erremintak
 - Garaiak eta ondorioak
- Euskaltegiaren curriculum proiektua
 - Subjektuak
 - Metodoak, prozedurak eta erremintak
 - Adierazleak
 - Garaiak
 - Dokumentu operatiboekiko uztardura: Memoriak eta Planak
- Euskaltegia
 - Subjektuak
 - Osagaiak: Helburuak, Egitura, Teknologia, Baliabideak, Kultura eta Ingurunea
 - Metodoak, prozedurak eta erremintak
 - Adierazleak
 - Dokumentu programatikoak: ECP eta Barne Araudia
 - Dokumentu operatiboak: Planak eta Memoriak.

Euskaltegietako Curriculum Proiektuen ebaluazioa



HIRUGARREN ERANSKINA

EBALUAZIO-TXANTILOA

Euskaltegiaren Curriculum Proiektua ebaluatzeko tresna, 2017ko ekainaren 21eko dataz, euskaltegieta zuzendari zein titularrei HABEren zuzendari nagusiak bidalitako eskutitzean aurkeztutakoa.

Euskaltegiko Curriculum Proiektua Ebaluatzeko Tresna

EBALUAZIO-TRESNA ERABILTZEKO ARGIBIDEAK

1. SARRERA

- Dokumentu hau Euskaltegiaren Curriculum Proiektua ebaluatzeko tresna da.
- Aintzat hartzen ditu HABE erakundeak zehazturiko gidalerroak (dimentsioak), euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak bere curriculum-proiektuan jaso beharko dituenak. (2015eko uztailaren 22ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma -HEOC- ezartzen duena).

2. EBALUATZEN DIREN DIMENTSIOAK

Ebaluatzen diren dimentsioak:

1. Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak bizi duen egoeraren eta bere inguru sozialaren beharren azterketa eta autoebaluazioa.
2. Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak bere egiten dituen hizkuntzaren ikas-irakaskuntzari buruzko printzipio nagusiak.
3. HEOCak zehazten dituen helburu eta edukien aukera eta hurrenkera, euskaltegi zein euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzaren eta ikasleen beharretara egokituz.
4. HEOCa mailaka egokitzeko proposamena, baita maila nahiz azpimaila bakoitzeko aurreikusten den ordurakopurua ere.
5. Hobetsitako aukera metodologikoak.
6. Lehenetsitako ikastereduak.
7. Ikasmaterialen eta irakasmaterialen proposamena eta hauek aukeratzeko irizpideak.
8. Ikasleak, irakasleak, ECPa eta euskaltegia bera ebaluatzeko arribideak

PUNTUAZIOA

:

Zortzi dimentsio dira aztertu beharrekoak.*

Atalak ebaluatzeko hurrengo ebaluazio-eskalan zehazten diren ebaluzio-irizpideak erabiliko dira:

BALORAZIO-ESKALAK	
A	HEOCaren hausnarketa sakona eta kritikoaren ondorioz, egitasmo eta ekarpen zehatzak aurkeztu ditu, adibideak txertatuz.
B	HEOCaren hausnarketa sakona egin da, eta ondo egokitu du euskaltegiaren errealitatera.
C	Eskatzen ziren datuak emateaz gain, arrazoitu ere egin ditu. HEOCaren gidalerro nagusiak barneratu ditu, eta euskaltegiaren errealitatera egokitzeari dagokionez, eman du gutxienezkoa.
D	Oso maila apalean azaldu du eskaturikoa; datu gehiegi utzi ditu airean edota HEOCak esandakoa kopia du, eta ez du bere egoerara/errealitatera egokitu.
E	Ez dio erantzun edo erantzun diona ez dator bat HEOCarekin.

Azkenik, ebaluatzaileak oharrak egiteko atala izango du, dimentsio bakoitza aztertzean, aipatu beharrekoak idazteko. Hona koadroa:

OHARRAK:

--

1. Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak bizi duen egoeraren eta bere inguru sozialaren beharren azterketa eta autoebaluazioa.

Euskaltegiaren kokapena eta deskripzioa	
*Titularitatea	
*Kokapena	
*Ikas- eta irakas-eremuak (egoitza, ikasgela, gela desplazatuak...)	

*Zerbitzuak (liburutegia, informatika-gela) *...	
Euskaltegiaren egitura eta antolaketa akademikoa *Organigrama (zuzendaria, gerentea, idazkari akademikoa...) *Koordinazioa *Irakaslearen profila (kopurua, adina, ikasketa akademikoak, euskara-maila, prestakuntza didaktikoa, ezagutza teknologikoa...)	
Ikasleak *Ezaugarriak (adina, jatorria, ikasketak, langabezia, behar komunikatibo nagusiak...) *Bilakaera azken hamarkadan	
Testuinguruaren alderdi soziolinguistikoak *Euskaltegia kokatzen den inguru sozialaren berezitasunak (euskararen ezagutza- eta erabilera-mailak; ikasleen profila derrigorrezko hezkuntza uztean...)	
Eskaera eta eskaintza akademikoa *Eskaera (mailak, ordutegiak, ikastereduak...) *Eskaintza (mailak, azpimailak, moduluak, ordutegiak, ikastereduak...) *Taldekatzeko/mailakatzeko irizpideak	
Elkarte eta erakundeekin elkarlana *Proiektuak, erabilera-aukerak, kanpo-ekintzak...	

OHARRAK:

2. Euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntzarako zentroak bere egiten dituen hizkuntzaren ikas-irakaskuntzari buruzko printzipio nagusiak.

Hizkuntzari buruzko ikuspegia *Hizkuntza sistema; komunikazio-tresna (erabilera)... *Egituraketa subjektuen beharrak asetzeko ° Zein da hizkuntza unitatea? ° Trebetasunen integrazioa ° ... *Hizkuntzaren gizarte-erabilerak *Gramatikaren trataera ikasprozesuan	
Ikas-irakaskuntzari buruzko ikuspegia *Hizkuntza baten ikas-prozesua: errepika? Gatazka kognitiboa? Eraiketa?... *Gizarte-testuinguruetan ikastea *Arazo-egoerak eta egoera-familiak *....	
Aldagai estralinguistikoak *Partaideen usteak ikas-irakaskuntzarekiko *Aurreikuspenak eta motibazioak *Aurrezagutzak: harrera-estruturak *Egoerak eta horien ezaugarriak	

OHARRAK:

3. HEOCak zehazten dituen helburu eta edukien aukera eta hurrenkera, euskaltegi zein euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzaren eta ikasleen beharretara egokituz

Mailaz mailako helburu zehatzen egokitzapena *Helburu-mapa *Helburu bakoitzari dagokion azken egitekoa	
Edukiak *Azken egitekoei begirako edukien egokitzapenak (kultura edukiak, formalak, pragmatikoak eta psikolinguistikoak) *Hautaketa-irizpideak eta hurrenkerak	

OHARRAK:

--

4. HEOCa mailaka egokitzeko proposamena, baita maila nahiz azpimaila bakoitzeko aurreikusten den ordu-kopurua ere

*Egituraketa: mailak, azpimailak, moduluak, ikastaroak... *Egitura-irizpideak *Zehaztutako egituraketaren arabera aurreikusitako ordu-kopurua: maila, azpimaila, moduluak, ikastaroak...	
---	--

OHARRAK:

--

5. Hobetsitako aukera metodologikoak

Rolak: *Irakaslea: bitartekaritza *Ikaslea: autonomia	
Ikaslearen, denboraren eta espazioaren antolaketa	
Taldekatzeko irizpideak: *Syllabus inplizituak *Aldamioak	
Harreman- eta komunikazio-sareak: ikaskuntza kooperatiboa	
Edukien antolaketa eta aurkezpena *Ikuspegi sintetikoa eta analitikoa *Ibilbide inuktiboa eta deduktiboa: heuristikoak *Arreta esanahian eta forman	
Ikas-sekuentzien egituraketa eta aurkezpena: *Aurrezagutzak eta gatazka kognitiboak *Ikaslearen syllabus inplizitua	
Aniztasunaren trataera	
Jarraipena, tutoretza eta ebaluazioa	

OHARRAK:

6. Lehenetsitako ikastereduak

Ereduak *Aurrez aurrekoa *Jardun bikoa *Ereduen arteko banaketa *Osagarritasun-irizpideak *Trebetasunen uztardura *Elkarrekintza-maila - Ikaslea-edukia - Ikaslea-irakaslea - Ikaslea-ikaslea - Ikaslea-teknologia *Gida didaktikoa *Autoikaskuntza *Osagarritasun-irizpideak *Trebetasunen uztardura *Elkarrekintza-maila - Ikaslea-edukia - Ikaslea-irakaslea - Ikaslea-ikaslea - Ikaslea-teknologia	
Eskaintza-irizpideak *Hartzailea	

*Gaitasun teknologikoa	
*Gaitasun estrategikoa	
*Autonomia-maila	
*Tutoretza	
Teknologia-mota	

OHARRAK:

--

7. Ikasmaterialen eta irakasmaterialen proposamena eta hauek aukeratzeko irizpideak.

Azterketa metodologikoa *Oinarrian zer adierazten den: marko metodologiko esplizitua *Hizkuntzaren kontzeptua *Ikaskuntza kontzeptua (jakinmina, motibazioa...) *Ardatz antolatzailea *Trebetasunen integrazioa *Ebaluazioaren trataera *Euskarritik zer ondorioztatzen den: azterketa didaktikoa *Erabileran testuingurura nola egokitzen den: irakasleen gaitasunak, ikasleen beharrak, kultura-edukiak...	
Ebaluazio-irizpideak *Testuinguruarekikoak *Egokiera-maila erakundearen helburuekiko - Programa, edukiak, ikastorduak...	

Erabiltzaile-mota	
Egiaztatzegintza	
...	
*Interesa	
Kultura-edukiak	
Kalitate formala	
Proposatutako jarduerak	
...	
*Proposamen didaktikoarekikoak	
*Koherentzia: eduki, metodologia eta azken ekintza komunikatiboaren artean	
*Kohesioa: unitate didaktiko jardueren artean	
*Argitasuna: egitekoan azalpenak emateko orduan	
*Zehaztasuna: edukien arteko hurrenkera eta progresioan	
*Malgutasuna: azaleratzeko arazoei aurre egiteko garaian	
*Aniztasuna: proposatutako jarduera-motetan	
Material didaktikoa berritzea	

OHARRAK:

8. Ikasleak, irakasleak eta euskaltegia bera ebaluatzeko aribideak.

Ebaluazioaren definizioa euskaltegiaren ikuspegitik *Helburuak, subjektuak, garaiak eta audientziak	
Ikaslea *Ebaluazioa ° Diagnostikoa: metodoak, prozedurak eta erremintak ° Formatiboa ° Sumatiboa: metodoak, prozedurak eta erremintak *Subjektuak: heteroevaluazioa, koevaluazioa eta autoevaluazioa *Normotipoa: idiografikoa, nomotetikoa (irizpideekikoa, normarekikoa) *Audientziak	
Irakaslea *Helburuak, subjektuak, garaiak eta audientziak *Irizpideak *Metodoak, prozedurak eta erreintak *Garaiak eta ondorioak	
Euskaltegiaren curriculum proiektua *Subjektuak *Metodoak, prozedurak eta erremintak *Adierazleak *Garaiak *Dokumentu operatiboekiko uztardura: Memoriak eta Planak	
Euskaltegia *Subjektuak *Osagaiak: Helburuak, Egitura, Teknologia, Baliabideak, kultura eta	

Ingurunea	
-----------	--

*Metodoak, prozedurak eta erremintak

*Adierazleak

*Dokumentu programatikoak: ECP eta Barne Araudia

*Dokumentu operatiboak: Planak eta Memoriak

OHARRAK:

--